

INGURUMEN-DOKUMENTU ESTRATEGIKOA
INGURUMEN EBALUAZIO ESTRATEGIKO SINPLIFIKATUA

**SONDIKAKO (BIZKAIA) GORONDAGANE HLHIN
PISTA ESTALI BAT ERAIKITZEKO PLAN BEREZIA**

2021EKO APIRILA

**Asesoría e Investigación
Medioambiental**

Konbenio, 11 trasera
48340 Amorebieta-Etxano
Bizkaia
Tel.: 94 630 06 19
Fax: 94 630 01 46
ekos@ekos-eeeco.com
www.ekos-eeeco.com

EECO
European Ecological Consulting S.L.
C.I.F. B48827075

AURKIBIDEA

1.	SARRERA ETA TXOSTENAREN XEDEA	5
2.	PLAN BEREZIAREN HELBURUA	6
2.1.	Aurrekariak	6
2.2.	Plan Bereziaren helburuak	7
3.	PLAN BEREZIAREN IRISMENA ETA EDUKIA	8
3.1.	Plan Bereziaren edukia eta proposatutako antolamenduaren deskribapena	8
3.2.	Plan Bereziaren garapen aurreikusia.....	10
4.	AUKEREN AZTERKETA ETA HAUTAKETAREN ARRAZOIA	11
5.	INGURUMEN EBALUAZIOA ESTRATEGIKO SINPLIFIKATUAREN PROZEDURA APLIKATZEAREN ARRAZOIA	12
6.	PLAN BEREZIAREN EREMUAREN INGURUMEN EGOERA	14
6.1	Klima.....	16
6.2	Hidrologia, uholde arriskua eta akuiferoen zaurkortasuna.....	17
6.3	Interes bereziko naturguneak	17
6.4	Landaretza eta fauna	17
6.5	Paisaia	19
6.6	Arriskuak	19
6.7	Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua	20
6.8	Ondare kulturala	20
6.9	Soinu maila eta kalitate akustikoa	20
7.	SEKTOREKAKO ETA LURRALDEKO PLANETAN AURREIKUS DAITEZKEEN ERAGINAK	26
8.	AURREIKUSITAKO INGURUMEN-ERAGINEN AZTERKETA	28
9.	NEURRI BABESLE ETA ZUZENTZAILEAK, KLIMA-ALDAKETA KONTUAN HARTUTA	32
10.	INGURUMEN-JARRAIPENA.....	33
11.	LANTALDEA	34
12.	BIBLIOGRAFIA	35

KARTOGRAFIA ERANSKINA

1. Plan Bereziaren eremuaren kokapena Sondikan (Bizkaia)

ARGAZKIEN AURKIBIDEA

Argazkia 1. CEIP Gorondagane HLHIren kirol-pistaren aireko bista eta ingurua, hegoaldetik. Ezkerrean beheko izkinan, Sondikako udaletxea	15
Argazkia 2. CEIP Gorondagane HLHIren kirol-pistaren aireko bista eta ingurua, iparraldetik, udaletxea atzealdean, eskuinean.	16
Argazkia 3. Estalkia proiektatzen den kirol anitzeko pistaren ikuspegia. Ezkerrean, ikastetxea.....	16
Argazkia 4. Gorondagane HLHIko pista inguruan dagoen landaredia.....	18
Argazkia 5. Partzelaren iparraldean dauden hostozabalak i, Goronda Beko kaleko aparkalekutik ikusita	18
Argazkia 6. Estalkia egiteko erabiliko den kirol-pistaren bista, atzealdean Sondikako udalerria.....	19

IRUDIEN AURKIBIDEA

Irudia 1. Eraikinaren gehieneko altuera (9 metro), egungo kirol-pistaren 26.00 m-ko sestratik aurrera neurtuta	8
Irudia 2. Sondikako Gorodangane HLHIko kirol-pistaren estalkiaren eta itxituren aurreikusitako diseinua.....	10
Irudia 3. SO. EL-1 UN partzelaren kokapena (laranja) eta azterketa eremua (arrosa), Sondikako udalerrian.....	14
Irudia 4. SO. EL-1UN partzelaren kokapena(laranja) eta kirol-pista (arrosa) Sondikako udalerrian.....	15
Irudia 5. Errepideen esku-hartzeko perimetroa eta salerosgaien garraioak eragindako arriskuak	20
Irudia 6. Bizkaiko errepideen zarata-mapa Sondikatik igarotzean, goizez, arratsalde eta gauez.	21
Irudia 7. Zortasun akustikoko eremua ikerketa eremuaren ingurunean	22
Irudia 8. Bilboko aireportuaren Zortasun Akustikoko Eremua.....	24
Irudia 9. Bilboko aireportuaren zarata mapak, goiz, arratsalde eta gauez.....	24
Irudia 11. Euskotrenen zarata mapak, goiz, arratsalde eta gauez Sondikatik igarotzean.	25
Irudia 10. Euskotrenen Zortasun Akustikoko Eremua, Sondikan.....	25



1. SARRERA ETA TXOSTENAREN XEDEA

Dokumentu honen helburua "Sondikako (Bizkaia) Gorondagane HLHIn pista estali bat eraikitzeke Plan Bereziaren" Ingurumen-Ebaluazio Estrategiko Sinplifikatua hasia da, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean jasotzen den bezala. Dokumentu honek, plan edo programaren zirriborroarekin batera, eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsultak egiteko balioko du. Kontsulta horien ondoren, ingurumen-organismoak Ingurumen-Txosten Estrategikoa igorriko du, aipatutako 21/2013 Legearen 31. artikuluan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren (planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duena) 5.3 artikuluan ezarritakoa betez.

Dokumentu honen edukiak 21/2013 Legearen 29. artikuluan ezarritakoa jasotzen du, aurreikusitako Plan Bereziaren ezaugarrietara egokituta:

- a) *Plangintzaren helburuak*
- b) *Proposatutako planaren irismena eta edukia*
- c) *Plan Bereziaren garapen aurreikusia*
- d) *Eragindako lurralde-eremuan Plan Berezia garatu aurreko egoeraren ezaugarriak*
- e) *Aurreikus daitezkeen ingurumen-eraginak; eta, egoki izanez gero, haien kuantifikazioa*
- f) *Arloko eta lurraldeko aldibereko planetan aurreikus daitezkeen eraginak*
- g) *Ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozedura aplikatzearen arrazoia*
- h) *Aintzat hartutako aukeren artean egindako hautaketaren arrazoien laburpena*
- i) *Plan Bereziaren aplikazioak ingurumenean eragin dezakeen edozein ondorio negatibo prebenitzeko, murrizteko, eta, ahal den neurrian, zuzentzeko aurreikusitako neurriak, klima-aldaketa kontuan hartuta*
- j) *Plan Bereziaren ingurumen-jarraipenerako aurreikusitako neurrien deskribapena*

Bestalde, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen 46/2020 Dekretuak, 32-5 artikuluan, plan berezien izapidetzea argitzen du, ingurumen-ebaluazio estrategikoari edo beste alderdi batzuei dagokienez, ildo horretan:

5- Lurzoru urbanizazinean eragiten dieten plan bereziei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak txostena egin beharko du planoi buruz

Era berean, 31-3 artikuluan Plan Partzialetarako zehaztutakoa betez gero (Plan Bereziatarako ere balio du), honako puntu hauek nabarmendu behar dira:

3-Bai ekimen partikularreko plan partzialen kasuan bai administrazio publiko eskudunak ofizioz egiten dituen kasuan, ingurumen-txosten estrategikoa egin eta ingurumen-organismoak hura jaso aurretik, hasierako onarpena eman ahal izango zaie plan partzialei, bai eta jendarean jartzeko izapidea bete dela egiaztatu ere. Halakoetan, plana hasieran onartzeko erabakiak adieraziko du onarpena ingurumen-txosten estrategikoaren emaitzaren baitan dagoela.

2. PLAN BEREZIAREN HELBURUA

2.1. Aurrekariak

Sondikan indarrean dagoen plangintza b motako Arau Subsidiarioek (AS) zehazten dute, eta azaroaren 7ko 738/1996 Foru Aginduen bidez onartu ziren behin betiko. Azaroaren 17ko 736/1997 Foru Aginduen bidez, behin betiko onarpena etenda geratu zen eremuetan Asak betearazteko adierazpena egin zen. Behin betiko araudia 1998ko martxoaren 16ko BAO, 51. zenbakian argitaratu zen.

Arau Subsidiarioetan, gaur egun Sondikako Gorondagane HLHIko kirol-pistak okupatzen duen lurzorua, Lurzoru Urbanizaezineko Espazio Libreko Sistema Orokor (SO.EL-1 un) gisa sailkatzen da, Plan Bereziaren hirigintza-memorian jaso eta Sistema Orokorren plano espezifikoan islatzen den bezala.



SISTEMA GENERAL DE COMUNICACIONES EN SUELO URBANO	ELKARTZEPIDE SISTEMA OROKORRA EN SUELO URBANO
SISTEMA GENERAL DE ESPACIOS LIBRES EN SUELO URBANO	GUNE LIBREEN SISTEMA OROKORRA EN SUELO URBANO
SISTEMA GENERAL DE E. COMUNITARIO EN SUELO URBANO	GIZARTE H. SISTEMA OROKORRA EN SUELO URBANO
SISTEMA GENERAL DE COMUNICACIONES EN S.A.P.M.	ELKARTZEPIDE SISTEMA OROKORRA EN S.A.P.M.
SISTEMA GENERAL DE COMUNICACIONES EN S.N.U.	ELKARTZEPIDE SISTEMA OROKORRA EN S.N.U.
SISTEMA GENERAL DE ESPACIOS LIBRES EN S.N.U.	GUNE LIBREEN SISTEMA OROKORRA EN S.N.U.
SISTEMA GENERAL DE E. COMUNITARIO EN S.N.U.	GIZARTE H. SISTEMA OROKORRA EN S.N.U.

2014an, kirol-pista eraiki zen, zegokion proiektu teknikoaren bidez. Hala ere, estalkia egiteke dago, eta horretarako proiektu tekniko berria garatu da. Estalkiaren proiektua izapidetzeko, ezinbestekoa da alde aurretik hura egiteko beharrezkoa de eraigarritasuna egokitzea.

Indarrean dauden ASek hainbat gai behar dituzte espazio libreei dagokienez (eraigarritasuna, etab.), eta Gorondaganen dauden eraikinak modu berezian arautzen dituzte. Eraikin publikoen ordenantzek altuerak, estalkiak, arkupeak eta abar zehazten dituzte (260. artikulutik 273.era bitartekoak).



Eremuan ezarritako gehieneko eraikigarritasuna 316,2 m²e dela kontuan hartuta, ez da nahikoa eraiki nahi diren 1.280 m²e baino gehiagoko eraikigarritasunarekin alderatuta. Beraz, gutxienez 41,5m x 24,5m-ko estalkia egiteko behar besteko eraikigarritasuna beharko da (lehendik dauden zapaten egoeraren arabera). Hori guztia, eskubaloiko edo saskibaloiko zelai baterako gaitasuna duen pistaren dimentsioa kontuan hartuta.

261. artikulua, Gune askeen sisteman dauden eraikinen araubideari buruzkoa, honako hau ezartzen du:

- *Dagoen eraikinean eraldaketa, sendoketa eta zabalkuntza obrak egin daitezke, baldin eta egun duen azalera eraikiaren %10a gainditzen ez badute. Lizentziaren eskaera-orriak inplizituko ezarriko du uko egiten zaiola egingo diren obra horien ondorio diren balioaren gehikuntzari.*

2.2. Plan Bereziaren helburuak

Plan Bereziaren helburu nagusia da indarrean dagoen plangintzan ezarritako parametro batzuk egokitzea, Sondikako (Bizkaia) Gorondagane HLHIn kirol-pistaren estalkia eraiki ahal izateko.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak eskatzen du Plan Berezia egitea eta onartzea. Bere berezitasunagatik, eta hirigintza-memorian jasotakoaren arabera, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak, 71. artikuluan definitutako hiri-berrikuntzako plan berezietan sar daiteke:

"Hiri-berrikuntzako plan berezien helburua honako jarduketa zehatz hauek garatzea izan liteke: hiri-lurzorua deskongestionatzea, zuzkidura publikoak eta ekipamendu kolektibo pribatuak sortzea, auzoak saneatzea, hiria berroneratzea eta birgaitzea, barne-erreforma, mugigarritasun-arazoak edo estetika-arazoak konpontzea, ingurumena edo zerbitzu publikoak hobetzea, eta antzeko beste batzuk. Helburu horiek betetzeko, jarduketa zehatzak egingo dira, eta jarduketa horiek aurreko antolamenduaren funtsezko egitura gordeko dute"

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 97. artikuluan *"Plan bereziak izapidetzea eta onartzea"* ezarritakoaren arabera, plan bereziak plan partzialetarako ezarritakoaren arabera formulatu, izapidetu eta onartuko dira.

Horrela, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 95. artikuluko ("plan partzialen izapidetzea" 5. atalak ezartzen duenez, 3.000 biztanletik gorako udalerrietan, udalaren bigarren onespina behin betiko onespina izango da. Kasu honetan, Sondikako Udala da organo substantiboa, eta organo sustatzailea Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila da, Azpiegitura, Baliabide eta Teknologia Zuzendaritzaren Eraikuntza Zerbitzuaren bidez.




3. PLAN BEREZIAREN IRISMENA ETA EDUKIA

3.1. Plan Bereziaren edukia eta proposatutako antolamenduaren deskribapena

Plan Bereziak hirigintza-antolamendua aldatzea proposatzen du, SO.EL-1 Espazio Libreen Sistema Orokorreko partzelaren ondoan dagoen eremuaren eraikigarritasun fisikoa areagotuz, ondoren, beharrezko egikaritze-proiektua onartzeko eta dagoen kirol-pistaren estalkia eraikitzeko obren lizentzia lortzeko. Horrela, eskola-ekipamenduko kirol-zerbitzu osagarriak hobetzea lortuko da.

Gaur egun, pistaren azalera 1.200 m²-tik gorakoa da. Bertan sartutako kantxa, angeluzuzen formakoa, 38m x 18m-ko kirol-pistako neurriak ditu, hau da, 684 m²-ko okupazioa. Pista, +26,00 metroko sestran dago. Hala ere, ingurua +23,00 m-ko altueran dago behealdean eta +30,00 m-tan alderik altuenean.



Irudia 1. Eraikinaren gehieneko altuera (9 metro), egungo kirol-pistaren 26.00 m-ko sestratik aurrera neurtuta

Eskubaloiko edo saskibaloiko zelai baterako gaitasuna duen pistaren neurria kontuan hartuta, 41,5m x 24,5m-ko estalkia egin behar da (aurretik zeuden zapaten egoeraren arabera).

Estalkia 26,00 metroko sestran eraikiko da.



Plan Bereziko gainerako zehaztapenak aurreikusitako estalkia eraikitzea ahalbidetuko dute, irizpide hauek jarraituta:

- Eraikina irekia edo kanpoko espazio estalia da, iparraldeko eta mendebaldeko fatxadetan sareta-itxiturak dituena (haizeak eta euri-urak bereziki eragindakoak). Saretak lurretik sabaira izango dira.
- Hegoaldeko fatxada erabat irekita egongo da, eta euri-uren aurkako babes bakarra estalkiaren 2,5 m-ko hegalkina izango da.
- Mendebaldeko eta hegoaldeko fatxaden zati batean, hormigoizko euste-hormak jarriko dira lurra eusteko.

ERAIKIGARRITASUN FISIKOA	<i>Egungo AS</i>	<i>Plan Berezia</i>
Koefizientea (m^2s/m^2l sestra gainetik)	0,01	0,05
Gehienezko eraikigarritasuna (m^2s sestra gainetik)	316,2	1.581

Horren ondorioz, eraikigarritasun fisikoaren koefizientea $0,05 m^2s/m^2l$ arte gehitzea proposatzen da SO.EL-1 NUn gara daitezkeen eraikin guztietarako nahi izan bezala banatzeko, eraikin batean edo gehiagotan. Betiere, sestra gaineko eraikigarritasuna da.

Beraz, partzela guztietarako ateratzen den eraikigarritasun fisikoa gehienez ere $1.581 m^2s$ izango da.

Partzelen kalifikazioari dagokionez, ez da zonakatzea aldatzen; HAPOk ezarritako kalifikazioa mantentzen da: Espazio Librean Sistema Orokorra.

Proposatutako hirigintza-antolamendu xehatuko gainerako parametroek (altuera, profila, lerrokadurak...) aipatutako kirol-pistarako estalkia eraikitzea ahalbidetuko dute.



Irudia 2. Sondikako Gorodagane HLHIko kirol-pistaren estalkiaren eta itxituren aurreikusitako diseinua

3.2. Plan Bereziaren garapen aurreikusia

Plan Berezia onartu ondoren, eremuan garatu beharreko urbanizazio obrak eraikuntzako obra osagarriei buruzko proiektu baten xede izango dira. Proiektu hori Eraikuntza Proiektua baino lehen edo aldi berean egin ahalko da.



4. AUKEREN AZTERKETA ETA HAUTAKETAREN ARRAZOIA

Dokumentu honetan ebaluatzen den proposamenari dagokionez, bi aukera baino ez daude: indarrean dauden Arau Subsidiarioetako zehaztapenak mantentzea (0 alternatiba) edo zenbait alderdi aldatzea Plan Berezi baten bidez eraikigarritasuna handitzeko eta, horrela, eskolako kirol-espazioa hobetzeko (1 alternatiba).

0 aukera. Gaur egungo araubidea.

"0" aukerak gaur egun indarrean dagoen araudia ez aldatzea ekarriko luke, eta horrek lurzatiaren eraikigarritasun fisikoa ez handitzea ekarriko lukenez, ez lirateke hobetuko irakaskuntza-ekipamenduaren kirol-zerbitzu osagarriak.

1. aukera

Alternatiba hau bat dator Plan Berezi honetan garatzen den proposamenarekin, eta eraikigarritasun fisikoarekin lotutako parametroei soilik eragiten die, handitu egin nahi baita.

Plan Bereziaren komenigarritasunaren eta egokitasunaren justifikazioa dauden kirol-zerbitzuak hobetzeko premian oinarritzen da, SO-EL-1-an gara daitezkeen eraikin guztietarako eraikigarritasun fisikoa areagotuz eta, aldi berean, ingurune geografiko honen baldintza klimatologikoak direla eta erabilgarriagoak bihurtuz, beraz, 1. alternatiba onartzen da.



5. INGURUMEN EBALUAZIOA ESTRATEGIKO SINPLIFIKATUAREN PROZEDURA APLIKATZEAREN ARRAZOIA

Ingurumen-ebaluazio estrategikoaren arloko araudia jasota dago Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean, ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean eta planen eta programen ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuan.

Lehenik eta behin, Sondikako Gorondagane HLHIn pista estali bat eraikitzeko Plan Berezia ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 1 eta 2. ataleko 6. artikuluan ezarritako ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatu edo/eta ohikoaren mende egongo litzatekeen aztertzen da, zeinak honako hau jasotzen duen:

6. artikulua. Ingurumen-ebaluazio estrategikoaren aplikazio-eremua.

1. Ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin behar zaie administrazio publiko batek abian jarritako edo onetsitako plan eta programak, bai eta haien aldaketak ere, haien prestaketa eta onespena beharrezkotzat jo badu legezko edo erregelamenduzko xedapen batek, Ministroen Kontseiluaren erabaki batek edo autonomia-erkidego bateko Gobernu Kontseiluaren erabaki batek, honako egoera hauetan:

- a) Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera legez behartutako proiektuak etorkizunean baimentzeko esparrua ezartzen badute, eta honako arlo hauei buruzkoak badira: nekazaritza, abeltzaintza, basogintza, akuikultura, arrantza, energia, meatzaritza, industria, garraioa, hondakinen kudeaketa, ur-baliabideen kudeaketa, itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren okupazioa, itsas ingurunearen erabilera, telekomunikazioak, turismoa, hiri- eta landa-lurraldearen edo lurzorua erabileraren antolamendua; edo bestela,*
- b) Ebaluazioa behar badute, Natura 2000 Sareko guneetan eragina dutelako, abenduaren 13ko 42/2007 Legean, natura-ondareari eta biodibertsitateari buruzkoan, xedatutakoaren arabera.*
- c) 2. paragrafoan jasota daudenak, ingurumen-organoak ingurumen-txosten estrategikoan hala erabakiz gero, kasuz kasu, V. eranskineko irizpideei jarraituz.*
- d) 2. paragrafoan jasota dauden plan eta programak, ingurumen-organoak hala erabakiz gero, sustatzaileak eskatuta.*

Plan Berezi hau ez dago ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoaren mende, ez baitu ezartzen etorkizunean ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin behar zaion proiekturik baimentzeko esparrua, eta ez du inolako loturarik Natura 2000 Sarearekin. Era berean, ez dira 2. ataleko kasuak aplikatzen; beraz, ingurumen-organoak ezin du kasu hori erabaki, eta, beraz, ezin da sustatzaileak eskaera hori egin.



2. Ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua honako kasu hauetan egin behar da:

a) Aurreko paragrafoan aipatutako plan eta programetan aldaketa txikiak egitean.

b) Aurreko paragrafoan aipatutako plan eta programetan, udal-mailan eremu txikien erabilera ezartzen dutenean.

c) Etorkizunean proiektuak baimentzeko esparrua ezartzen duten plan eta proiektuetan, aurreko paragrafoan ezarritako gainerako baldintzak betetzen ez dituztenean

Honi dagokionez, berariaz ez da plan edo programa baten aldaketa txiki bat, baizik eta Plan Berezi bat, lurzati baten eraikigarritasun fisikoaren koefizientea indarreko Arau Subsidiarioetan zehaztutakoarekin alderatuta aldatzera mugatzen dena, eta ez du jarraitutasunik izango etorkizunean ingurumen-ebaluazioa behar duen proiekturen batekin. Ondorioz, b) atalean sar daiteke, eremu txikiak aipatzen baititu, baina ezin da esan haien ekintzek ingurumenean eragin nabarmenik izan dezaketenik.

Aurrekoa eta 21/2013 Legea eta 211/2012 Dekretuaren azken xedapenetako lehenengoan ezarritakoa kontuan hartuta (dekretu horrek 3/1998 Legearen 1. eranskinaren A atala aldatzen du eta ingurumenean ondorio esanguratsuak izan ditzaketen kasuak ere aipatzen ditu), ez dirudi Plan Berezia 21/2013 Legearen 6. artikuluko 2. paragrafoan ezarritako kasuetan sar daitekeenik.

A) Ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedurapean jarritako planen eta programen zerrenda (3/1998 Legearen 1. eranskina):

1. Lurralde Antolamendurako Artezpideak.

2. Lurralde Plan Partzialak.

3. Lurraldearen Arloko Planak.

4. Hiri antolamenduko plan orokorrak.

5. Sektorekatzeko planak.

6. Ingurumenean ondorio nabarmenak izan ditzaketen plangintza orokorraren bateragarritasunplanak, hiri-antolamendurako plan partzialak eta hiri-antolamendurako plan bereziak

7. Ingurumenean ondorio nabarmenak izan ditzaketen aurreko planen aldaketak
(...)

Hala ere, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak, 69. artikuluko 3. paragrafoan, honako hau ezartzen du: “Plan partzialetarako aurreikusitakoen antzekoetan formalizatuko dira plan bereziaren zehaztapenak ere; agirien edukia, ordea, beren xedera moldatuko dute plan bereziek. Urbanizaezin modura sailkatutako lurzorua ukitzen badute osorik edo zatiren batean, ingurumenarekiko kaltea neurtzeko arauetan eskatzen diren agiriak ere jaso beharko dituzte”. Testuinguru horretan, eta Lurzoruari buruzko Legearen 69. artikuluari jarraikiz, egokitzen jo da Sondikako Gorondagane HLHIn pista estali bat eraikitzeko Plan Bereziari ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozedura aplikatzea, urbanizaezin gisa sailkatutako lurzoruari eragiten baitio.




6. PLAN BEREZIAREN EREMUAREN INGURUMEN EGOERA

Sondika Bilbo Metropolitarrako Eremu Funtzionalean dago, 6,8 km²-ko azalera dauka, eta 4.534 biztanle ditu; horietatik 2.367 emakumeak dira (%52,2) eta 2.167 gizonak (% 47,8) (Eustat 2020). Iparraldean Loiurekin du muga, hegoaldean Bilborekin, ekialdean Derio eta Zamudiorekin eta mendebaldean Erandioarekin.

Planaren jarduketa-eremua Sondikako Gorondagane HLHIren ondoko lurzatiak dira. Udalerriaren iparraldean dago, Goronda Beko eta Goronda Gane kaleen artean, eta eremuaren hegoaldean, berriz, udaletxea dago. Gaur egun, kirol pista irakaskuntza guneko eraikinen ekialdean dago, zeharkako norabidean. Pistaren egungo azalera 1.200 m²-tik gorakoa da, eta bertan sartutako kantxa angeluzuzenak, kirol-pista baten neurriak ditu (38m luze x 18m zabal), hau da, 684 m² inguru hartzen ditu. Pista, 26,00 metroko sestran dago.

Arau Subsidiarioen arabera, ikastetxeak okupatutako lurzorua eta kirol-pista bat datoz Lurzoru Urbanizaezineko Espazio Libreen Sistema Orokorrearekin.



Irudia 3. SO. EL-1 UN partzelaren kokapena (laranja) eta azterketa eremua (arrosa), Sondikako udalerrian

(Iturria: Datu Espazialen Egitura, Eusko Jaurlaritza)



*Irudia 4. SO. EL-1UN partzelaren kokapena(laranja) eta kirol-pista (arrosa) Sondikako udalerrian.
(Iturria:Datu Espazialen Egitura, Eusko Jaurlaritza)*



*Argazkia 1. CEIP Gorondagane HLHren kirol-pistaren aireko bista eta ingurua, hegoaldetik.
Ezkerrean beheko izkinan, Sondikako udaletxea*



Argazkia 2. CEIP Gorondagane HLHren kirol-pistaren aireko bista eta ingurua, iparraldetik, udaletxea atzealdean, eskuinean.



Argazkia 3. Estalkia proiektatzen den kirol anitzeko pistaren ikuspegia. Ezkerrean, ikastetxea.

6.1 Klima

Sondika EAEko isurialde atlantikoan kokatzen da. Oro har, klima mesotermikoa da, tenperatura moderatua eta oso euritsua. Jarraian aurkezten diren datu klimatologikoak, 2020an, Sangronizko (C0B9) estazio meteorologikoan jasotakoak dira. Estazio hori Sondikan dago eta 10 metroko altueran kokatzen da.



Urteko tenperaturen laburpena (°C)

Taula honetan, Sangronizko estazio meteorologikoan 2020an erregistratutako tenperatura minimoak eta maximoak adierazten dira:

Bataz besteko tenperatura (°C)	14,7
Bataz besteko tenperatura maximoa(°C)	20,1
Bataz besteko tenperatura minimoa(°C)	9,8
Tenperatura maximo absolutua (°C)	40,6
Tenperatura minimo absolutua (°C)	-1

Urteko prezipitazioen laburpena (l/m²)

2020an metatutako prezipitazioa 1.067 l/m² izan zen guztira, eta prezipitazio maximoak urrian eta abenduan izan ziren.

6.2 Hidrologia, uholde arriskua eta akuiferoen zaurkortasuna

Hidrologiari dagokionez, Asua ibaia aztertutako eremutik 350 metro hegoaldera dago, eta Ibaizabaleko Unitate Hidrologikoan kokatzen da.

URaren Datu Espazialen Azpiegituran uholde-arriskuari buruz dagoen informazio ofizialaren arabera, eremu horretan eta inguruetan ez dago uholde-arriskurik.

Bestalde, eremuan ez dago akuiferoen kutsadurarekiko zaurkotasun nabarmenik.

6.3 Interes bereziko naturguneak

Ez dago interes bereziko naturgunerik; izan ere, hiri-ingurunean dago, eta inguruan etxebizitzak eta ekipamenduak ditu.

6.4 Landaretza eta fauna

Artifizializatutako eremua denez, ez dago interes bereziko landaretzarik. Eremuaren inguruan dagoen landaredia soropil-azalerei eta zuhaitz- eta zuhaixka-oin batzuei dagokie.



Argazkia 4. Gorondagane HLHIko pista inguruan dagoen landaredia



Argazkia 5. Partzelaren iparraldean dauden hostozabalak i, Goronda Beko kaleko aparkalekutik ikusita

Azterketa-eremuan dagoen fauna hiri-inguruneetara egokitutako espezie komunei dagokie. Hala ere, Eusko Jaurlaritzaren kartografia ofizialaren arabera, eremua baso-igela iberiarra (*Rana ibérica*) eta Schreiber muskerra (*Lacerta schreiberi*) lehentasunezko banaketa-eremuaren barruan dago, biak ere Mehatxatutako Espezieen Euskal Katalogoan jasota, Interes Berezikotako kategorian.

Aipatu behar da bai baso igela iberiarrak eta bai Schreiber muskerra kartografiatuta daudela (eta, ziur asko, egongo dira) ia EAEko eremu atlantiko osoan. Edonola ere, aztergai dugun eremuak eta haren hurbileko inguruak ez dituzte betetzen espezie hauek egoteko baldintza ekologiko egokiak.



6.5 Paisaia

Oro har, eta 1990. urtean egindako EAEko paisaia-kartografiaren arabera, azterketa-eremua bat dator, eremu flubialean belardiak eta atlantikoaldeko laborantza nagusi dituen paisaia unitatearekin, eta Sondikako ikus-arroan sartuta dago.

Hala ere, sailkapen hau ez dator bat gaurkotasunarekin; izan ere, gaur egun paisaia hiri-paisaia da, nagusiki familia bakarreko etxebizitzek eta/edo ilaran dauden etxebizitzek osatua, belardiekin eta lorategiekin batera.

Eremua mendi-mazela batean dago, eta horrek udalerrriaren ikuspegi panoramikoak baimentzen du.




Argazkia 6. Estalkia egiteko erabiliko den kirol-pistaren bista, atzealdean Sondikako udalerria.

6.6 Arriskuak

EAEko ingurumen-kartografiaren arabera, Plan Bereziaren eremuan ez dago **arrisku natural** garrantzitsurik. Aipatzekoa da Sondikako udalerria V. mailako arrisku sismikoa aurkezten duela, eta honek 500 urteko aldian Mercalli eskalan V. mailako lurrikara izateko probabilitatea adierazten duela.

Arrisku teknologikoen artean, udalerrian Seveso III araudiak araututako produktu kimiko kopuru handiak dituen kokaleku bat dago. Befesa Zinc Óxido, S.A.U. enpresa da, Sangroniz industrialdean dago, eremutik 600 metrora, eta goiko eragin maila duten establezimenduen kategorian sailkatuta dago.

Salerosgai arriskutsuen garraioak dakarren arriskuari dagokionez, arriskua oso txikia da errepide hurbilenetan (BI-737 eta Errekagane kalea) eta txikia N-637 errepidean. Azterketa-eremua errepidearen aurkako baldintzetan istripua egotekotan esku-hartzeko 600m-ko perimetroan sailkatuta dago.



Irudia 5. Errepideen esku-hartzeko perimetra eta salerosgaien garraioak eragindako arriskuak
(Fuente: Datu Espazialen Egitura, Eusko Jaurlaritz)

6.7 Kutsatuta egon daitezkeen lurzorruak

2017ko abenduaren 21eko Aginduak Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak jasaten edo jasan dituzten lurzoruen inbentarioa eguneratzen duenaren arabera, eremua ez dago kutsatuta egon daitekeen lurzoru gisa sailkatuta.

6.8 Ondare kulturala

Eremuaren inguruan ez dago ondare kulturalako elementurik.

6.9 Soinu maila eta kalitate akustikoa

Zarata gehien sortzen duten guneak errepideak, Bilboko aireportua eta Euskotrenen trenbidea dira. Udalerritik igarotzen diren eta 2018an eginda dauden Bizkaiko foru errepideen (BI-737 eta N-637) zarata-mapen (6198/2018 Foru Agindua) informazioa erabilgai dago, mapa hauek, lurretik 2 metrora eginda daude, bide-zirkulaziotik datozen zarata-fokuak ebaluatzeko.

Emisioen zarata-mailak goiz, arratsalde eta gauerako kalkulatu dira, hurrengo irudietan jasotzen den bezala:




Lgoiz



Larratsalde




Lgau



Irudia 6. Bizkaiko errepideen zarata-mapa Sondikatik igarotzean, goizez, arratsalde eta gauez.
(Iturria: Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegitura eta Lurralde Garapen Saila. 2018)



Plan Bereziaren eremua BI-737 eta BI-637 foru-errepideetako Zortasun akustikoko eremutik kanpo dago.



*Irudia 7. Zortasun akustikoko eremua ikerketa eremuaren ingurunean
(Iturria: Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegitura eta Lurralde Garapen Saila.
2018)*

Kontuan hartu behar da Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuak (zonakatze akustikoari, kalitate-helburuei eta emisio akustikoei dagokienez) eta EAEko zaratari buruzko 213/2012 Dekretuak ezarritako soinu-mugak betetzen direla. Zonakatze hori eremu akustiko mota desberdinen lurralde-mugaketaren bidez egiten da. Eremu bakoitzak Kalitate Akustikoaren Helburu (KAH) jakin bat du, kasu honetan lehendik dauden eremu urbanizatuei aplikatzekoa, eta taula honetan jasotzen da:



	Eremu akustiko mota	Zarata adierazleak		
		L _d (goiz)	L _e (arratsalde)	L _n (gaua)
e	Osasun-, hezkuntza- eta kultura-erabilerako lurzoruak nagusi diren eta hots-kutsaduraren aurkako babes berezia behar lurralde-esparru edo -sektoreetarako zehaztutakoekin.	60	60	50
a	Bizitegi-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak.	65	65	55
d	c) paragrafoan jasotakoa ez bestelako hirugarren sektoreko erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo sektoreak.	70	70	65
c	Jolaserako eta ikuskizunetarako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak.	73	73	63
b	Industria-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak	75	75	65
f	Garraio-azpiegiturako sistema orokorrek edo horiek behar dituzten ekipamendu publikoek eragindako lurralde-esparru edo -sektoreak.	(1)	(1)	(1)

Dauden eremu urbanizatuetarako zarataren kalitate akustikoko helburu aplikagarriak (213/2012 Dekretua). (1): Beren eremuaren mugan, mugakide dituen eremuen zonakatzeko motari dagozkionak


Kalitate Akustikoko Helburuak (KAH) kontuan hartuta, aztergai den eremua, printzipioz, e eremu akustikoaren tipologiari dagokio (60dB (a) goiz eta arratsalde eta 50 dB (a) gauetz). Lurzatiak balio horiek baino zarata-maila txikiagoa du, eta, beraz, KHAk betetzen dira.

Bestalde, hezkuntza- edo kultura-erabilerarako eraikinen barne-espazio bizigarriari aplikatu dakizkikeen KAHk honako hauek dira:

Esparru mota	Zarata adierazleak		
	L _d	L _e	L _n
Ikasgelak	40	40	40
Irakurketa gelak	35	35	35

Hala ere, kasu honetan, balio hauek ez dute garrantzirik, pista estalita geratuko baita, baina ez itxita.


Beste zarata-iturri garrantzitsu bat Bilboko aireportutik eratorritako jardueratik datorrena da, nahiz eta Plan Bereziaren eremua ez dagoen aireportuko Zortasun Akustikoko Eremuaren barruan.



Irudia 8. Bilboko aireportuaren Zortasun Akustikoko Eremua

Era berean, Aenako Plangintza eta Ingurumen Sailak 2012an egindako zarata-mapetako informazioa eskuragarri dago (1367/2007 ED):


Lgoiz



Larratsalde



Lgau




Irudia 9. Bilboko aireportuaren zarata mapak, goiz, arratsalde eta gauz.

(Iturria: Aenako Plangintza eta Ingurumen Saila, 2012)




Azkenik, trenbidearen Zortasun Akustikoko Eremuak ez dio eragiten azterketaren xede den eremuari.



Irudia 10. Euskotrenen Zortasun Akustikoko Eremua, Sondikan

Hona hemen Euskotrenen zarata-mapak ematen duen informazioa:


Lgoiz



Larratsalde



Lgau



Irudia 11. Euskotrenen zarata mapak, goiz, arratsalde eta gaez Sondikatik igarotzean.



7. SEKTOREKAKO ETA LURRALDEKO PLANETAN AURREIKUS DAITEZKEEN ERAGINAK

Atal honetan udalaz gaindiko Sektorekako eta Lurraldeko Planei buruzko informazio laburra jaso da. Hauek, aztertzen ari den Plan Berezian eragina izan lezakete.

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG)

(Behin-betiko Onespena, otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuaren bidez; Berrikuspenaren behin betiko onespena uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuaren bidez)

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak lurraldearen eta hiri antolaketa-erako gainerako antolamendu tresnak gauzatzeko abiapuntu dira, eta lurraldea Eredu Funtzionala banatzen du. Sondika Bilbo Metropolitarraren Eredu Funtzionalaren barruan dago.

LAGek ez dute ezer zehatzik aipatzen Sondikako udalerrirako, ezta aztergai den eremuari dagokionez ere.

Bilbo Metropolitarraren Eredu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala

(Behin betiko onarpena, irailaren 26ko 179/2006 Dekretuaren bidez. Egun berrikusten)

Lurralde Plan Partzialen (LPP) helburua lurraldearen antolakuntza eta egiturari dagozkion oinarriko elementuak zehaztea da, gainerako planeamenduarentzat, izan tokikoa nahiz sektoriala, erreferentzia izango delarik.

2017an idatzitako LPPren aurrerakinaren memoriak, "Hautzaroaren, hiriaren eta lurraldearen inguruko politika eta ekimenak Bilbo Metropolitarran" atalean zehazten du, hurrek hiriaz gozatzeko, autonomo izateko eta pertsona gisa garatzeko duten eskubideak duen garrantzia, ingurune atsegin eta errespetuzko baten. Hiri-inguruneak zer eragin duen pertsonen garapenean eta haien asmo pertsonal eta sozialen integrazioan baloratu behar dela.

Jolasa gizakion hazkuntza- eta ikaskuntza-prozesuan funtsezkoa denez, hazkuntza eta ikaskuntza aktiboa erraztu behar dira, espazio publikoan eta hiriko bestelako espazioetan jolasa sustatuz. Alde horretatik, hiriak berritzeko prozesuetan ikastetxe publikoetako patioak espazio balioaniztun gisa duten garrantzia azpimarratu beharra dago eta espazio publikoan integratu behar dira, arau, diseinu eta aldaketa espezifikoaren bitartez eta auzoak suspertzeko duten gaitasuna azpimarratuta.



Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala

(Behin betiko onarpena, irailaren 16ko 177/2014 Dekretuaren bidez)

Irakaskuntza-erakinetik hurbilen dagoen zatia Ekipamenduen Sistema Orokortzat jotzen da (Udalplan, 2020), eta eremuaren ekialdea, Nekazaritza eta Basozaintzako LPSren arabera, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabala: trantsizioko Landa Paisaia gisa kalifikatuta dago.

LPS honen erabilerak eta jarduerak arautzeko matrizeak ezartzen du, mota honetako lurzoruetan onargarria dela Onura publikoko eta gizarte-intereseko eraikinak, kasu honetan gauzatu nahi den estalkiaren sartuko bailitzateke. Hala ere, zehaztu du nekazaritza eta basozaintzako jardueran izandako eragina aztertuko dela eta neurri zuzentzaileak jasoko direla sektore-eragina ebaluatzeko protokoloan adierazitako moduan (I. eranskineko D dokumentua; Nekazaritza eta Basozaintzako LPSko «Jardun-tresnak»).

Kasu honetan, gaur egun "Nekazaritza, abeltzaintza eta landazabala: trantsizioko Landa Paisaia" gisa kalifikatutako eremua kirol anitzeko pista batek hartzen duenez, eta, ondorioz, erabat artifizializatuta dagoenez, ez da egokitzat jotzen nekazaritza-eta basogintza-jardueran izandako eragina aztertzea, ez baita inolako eraginik izango sektore horretan.

Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatze Lurralde Plan Sektoriala

(Aldaketaren Behin-betiko Onespena azaroaren 17ko 449/2013 Dekretuaren bidez)

Inguruetan ez dago ibai-ibilgurik. Gertuen dagoena Asua ibaia da, aztertutako eremutik hegoaldera, 350 metroko distantziara. Beraz, lurzati honetako lurzorua ez daude LPS honen zehaztapenen eraginpean.

Hezeguneen Lurralde Plan Sektoriala

(Behin-betiko Onespena uztailearen 27ko 60/2004 Dekretuaren bidez)

Azterketa ez da egokia, eremuan eta udalerrian ez baita hezegunerik erregistratu, eta, beraz, lurzati LPS honen antolamendu-eremutik kanpo dago.

Jarduera Ekonomikoak eta Saltokiak Antolatze EAEko Lurralde Plan Sektoriala

(Behin-betiko onespena, abenduaren 21eko 262/2004 Dekretua. Berrikuspen Partzialean)

LPs honek ez du eraginik, arau-aldaketak ez baitu eraginik izango udalerriko jarduera ekonomikoetan eta merkataritza-establezimenduetan.



8. AURREIKUSITAKO INGURUMEN-ERAGINEN AZTERKETA

Sondikako Gorondagane HLHIn estalkia eraikitzeke Plan Bereziak eremuaren gehieneko eraikigarritasuna handitzeari egiten dio erreferentzia, eta, beraz, hirigintza-antolamenduan aldaketa hori egiteak ez du ingurumenean ondorio garrantzitsurik ekarriko.

Hala ere, uste da proposatutako estalkia eta itxiturak egiteko lanen faseak ingurumen-inpakturen bat izan dezakeela, nahiz eta txikia izan. Ondoren, kirol-pista estalia erabiltzeko fasean, ondorioak guztiz positibotzat jotzen dira.

Testuinguru honetan, ingurumen-aldaketak eragin ditzaketen ekintzak eta alda daitezkeen gizarte eta inguruneke elementuak identifikatu behar dira.

Aipatutako ekintzak eraikuntza-fasean egingo dira, eta obrako makinen eta ibilgailuen zirkulazio eta erabilerari, eta estalkia bera eta gainerako itxiturak eraikitzeari dagozkionak izango dira.

Hauek dira, hasiera baten, eragin positiboa eta/edo negatiboa izan dezaketen gizarte- eta ingurumen-faktoreak:

Gizarte eta Ingurumen alderdiak	Elementu edo gizarte eta ingurumen-ezaugarriak
Airea	- Zarata
Hondakinak / Baliabideak	- Hondakinen sorrera/ Baliabideen kontsumoa (Energia, materialak, etb.)
Paisaia	- Paisaiaren pertzepzioan aldaketak
Giza eta gizarte ingurunea	- Bizi kalitatea / Bizigarritasuna - Lana
Aldaketa klimatikoa	- Klima aldaketari egindako ekarpena

Aurreikusitako estalkia eraikitzeke lanak egiteak aldi baterako eta unean-uneko eraginak eragingo ditu, eta eten egingo dira lanak amaitutakoan.

Erasanen identifikazioa erantsitako matrizean islatzen da, inpaktu gehienak esangura gutxi gisa identifikatuz eta, beraz, bateragarritzat baloratuz. Aldiz, estalkia eraikitzeke makineriaren funtzionamenduaren ondoriozko erasana, zarata-emisioak direla eta, esanguratsutzat jo den arren, bateragarri gisa baloratu da denborazkotasunagatik eta tamainagatik.



Halaber, eskola-ingurunearen beraren eta ondoko bizitegi-eremuaren bizi-kalitaterako eta bizigarritasunerako efektu positiboak identifikatzen dira; izan ere, kirol-pista erabiltzearen ondoriozko zarata-mailak murriztuko dira, estalki eta perimetro-itxiturei esker. Jarraian, ingurumen-alderdiei buruzko matrizearen emaitzak jasotzen dira.

Zarata

Estalkia eraikitzeako obrak gauzatzeak obraren beraren ondoriozko zarata-mailak handitzea ekarriko du. Ondorio horiek, hala badagokio, eragozpenak sortuko dizkiete ikastetxeko erabiltzaileei, inguruko etxebizitzetara eta oinezkoiei, baina aldi baterakoak izango dira, eta eten egingo dira obrak amaitutakoan. Oro har, eragin hau esangura gutxikotzat, eta bateragarritzat jotzen da, aldi baterakoa delako.

Zarata-mailei dagokionez, kontuan izan behar da, irakaskuntza-gunea denez, erabiltzaileen jarduerak berak zarata sor dezakeela ordu zehatzetan (sarrerak eta irteerak, jolasaldia, kirol-jarduerak, jantokia). Hala ere, kontuan hartuta eragin hori ikastetxean egiten den jardueraren ondorio zuzena dela, eragin dezakeen pertsona-kopuru txikia eta unean unekoa dela, esangura gutxikoa eta bateragarria da.

Gainera, estalkiak eta gainerako itxiturak ondorio positiboak izango ditu ondoko etxebizitzarako eta irakaskuntza-jarduerarako, kirol-pistan sortzen den zarata-maila murrizten lagunduko baitu.

Baliabideen kontsumoa eta hondakinen sorrera

Estalkia egiteak baliabideen kontsumoa ekarriko du (eraikuntzako materialak, energia, etab.), eta horien eragina esangura gutxikoa eta bateragarritzat jo da, aurreikusitako obren tamaina txikia delako.

Hondakinen sorrerari dagokionez, lanen fasean ez da uste eraikuntzako hondakinen bolumen handia sortuko denik. Horiek ondo kudeatu behar direla kontuan hartuta, sortzen diren hondakin urriek ez dute eragin garrantzitsurik izango.



Paisaia

Proposatutako estalkiak paisaian elementu berri bat agertzea ekarriko du, eta, bere kokapena dela-eta, muinoaren ia goialdean, altuera txikiagoko eremuetatik ikusi ahal izango da. Aitzitik, ingurunera joaten diren pertsonak (parkea, hilerrirako bidea, udaletxea...) ez dute udalerriarekiko paisaia-oztoporik izango, estalkia baxuagoa baita. Gainera, planteatzen den diseinu erakargarriak ingurunearekiko paisaia-integrazio egokia bermatzen du; beraz, eragina esangura gutxik eta bateragarritzat jotzen da.

Bizi kalitatea / Bizigarritasuna

Lan orok inguruneke bizi-kalitatea aldatzea dakar (zarata, irisgarritasunerako mugak, etab.). Hala ere, eragin horiek aldi baterako izango dira, eta eten egingo dira lanak amaitutakoan. Beraz, eraikuntza-fasean, erasana esangura gutxikoa eta bateragarritzat jo da eskola-jardueraren eta aldameneko etxebizitzaren bizigarritasunerako.

Bestalde, estalkia ezartzeak eskola-ekipamenduko kirol-zerbitzuak hobetzea ekarriko du, erabiltzaileen ongizateari lagunduz. Beraz, espazio hori erabiltzen duten pertsonen bizi-kalitaterako/bizigarritasunerako ondorio positiboak izango dituela uste da, baita auzokoentzat ere, kirol-pista erabiltzean sortzen diren zarata-mailak murriztuko direlako.

Lana

Estalkia eta itxiturak eraikitzeke fasean enplegua sortuko da, eta, beraz, ondorio positibotzat jotzen da.

Klima-aldaketa egindako ekarpena

Lanen tamaina txikia kontuan hartuta, lanak egin bitartean atmosferara igorri daitezkeen berotegi-efektuko gasak garrantzirik gabekoak direla uste da. Beraz, alderdi horiek klima-aldaketa prozesu globalean ia ez dutela eraginik izango uste da. Eguzki-plaka termikoak eta/edo fotovoltaiakoak instalatzea aurreikusten bada, klima-aldaketa minimizatzeko ekarpena positiboa izango da.

**MATRIZA. SONDIKAKO (BIZKAIA) GORONDAGANE HLHIⁿ PISTA ESTALI BAT ERAIKITZEAREN ZEHAZTAPENETATIK
ERATORRITAKO INPAKTUEN IDENTIFIKAZIOA**

GIZARTE ETA INGURUMEN ALDERDIAK		AIREA		HONDAKINEN SORRERA BALIABIDEEN KONTSUMOA	PAISAIA	GIZA INGURUNEA		ALDAKETA KLIMATIKOA
		Kutsadura atmosferikoa	Zarata			Bizi-kalitatea/ Bizigarritasuna	Lana	
EKINTZAK								
Eraikitze fasea	Obrako makinena eta ibilgailuen zirkulazioa eta funtzionamendua							
	Estalkia eta itxiturak eraikitzea							
Funtzionamendu fasea	Kirol pista estalia erabiltzea							
	Elementu berrien presentzia (estalkia, itxiturak, balizko eguzki-plakak)							

Positiboa

Esangura gutxikoa

Esanguratsua

Oso esanguratsua



9. NEURRI BABESLE ETA ZUZENTZAILEAK, KLIMA-ALDAKETA KONTUAN HARTUTA

Eraginak identifikatu eta baloratzeko atalean adierazi den bezala, Plan Berezi honek ahalbidetzen duen gehieneko eraikigarritasuna handitzeak ez du aurreikusten, oro har, ingurumen-eragin garrantzitsurik izango duenik. Obren fasean estalkia eta gainerako itxiturak egiteak bakarrik eragin ahal izango du eraginen bat, eta horietarako neurri zuzentzaileak har daitezke. Jarraian, neurri orokor batzuk proposatzen dira, eraginak ahalik eta txikienak izan daitezen.

Gehieneko eragin-eremua mugatzea

Estalkia eraikitze lanak egiten diren unean, ahalik eta gehien murriztuko da espazioen okupazioa laneko materialekin eta makineriaren zirkulazioa horretarako egokitutako eremuetatik kanpo.

Airearen kalitatean eragindako ondorioekin lotutako neurriak

Obrek irauten duten bitartean gutxienez honako babes-neurri orokor hauek hartuko dira:

- Inguruetan eta sarbideetan garbiketa-lanak egitea.
- Beharrezkoa izatekotan, kamioien zama eta materialen bilketak estaltzea.

Kutsadura akustikoari buruzko neurriak

Lanen fasean sor daitekeen zaratari dagokionez, Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren 22. artikuluan aurreikusitakoa hartuko da kontuan, zonakatze akustikoari, kalitate-helburuei eta emisio akustikoei dagokienez. Lanen fasean, aire zabalean erabiltzen diren makinaren soinu-emisioei buruz indarrean dagoen legerian ezarritako aginduak bete behar dira, eta, bereziki, aplikatzekoa zaienean, aire zabalean erabiltzen diren makina jakin batzuen ondoriozko ingurunekeo zarata-emisioak arautzen dituen otsailaren 22ko 212/2002 Errege Dekretuan (apirilaren 28ko 524/2006 Errege Dekretuak aldatua) eta arau osagarrietan ezarritakoa. Eguneko lan-ordutegia errespetatuko da.



Hondakinen sorrerari buruzko neurriak

Obran sortutako hondakin guztiak indarrean dagoen legegintzarekin bat kudeatu behar izango dira (22/2011 Legea, uztailaren 28koa, hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoa, 112/2012 Dekretua, eraikuntza-eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko dena eta 49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena).

Jasangarritasunari eta klima-alaketari buruzko neurriak

- Estalki berrian energia berriztagarria aprobetxatzeko sistemak ezartzearen bideragarritasuna aztertzea (Eguzki-bilketa termikoa, fotovoltaikoa, etab.)
- Argiterian energia-kontsumoa aurrezteko sistemak ezartzea
- Erabili beharreko eraikuntza-materialak iraunkorrak eta birziklagarriak izan daitezen saiatzeari.
- Jatorri hurbileko materialen erabilera sustatzea, joan-etorriak minimizatu eta , honek dakarren energia-gastua txikituz.

10. INGURUMEN-JARRAIPENA

Sondikako CEIP Gorondagane HLHIren Plan Bereziaren xede den proposamena gauzatzearen ingurumen-jarraipenaren helburua, ingurumen-dokumentu estrategikoan ezarritako ingurumen- eta/edo jasangarritasunarekin lotutako xedeak eta irizpideak betetzen direla gainbegiratzea da, ezarritako neurri babesle eta zuzentzaileak behar bezala ezartzen direla bermatuz. Oro har, honako hauek izango dira gainbegiratu beharreko alderdiak:

- Hala badagokio, aurreikusitako obren pilaketek okupatutako azalerak gainbegiratzea (materialak pilatzea, hondakinak biltzea, etab.).
- Lanen fasean zarata maila kontrolatzea eta kalitate akustikoko helburuak betetzen direla bermatzea.
- Lanen fasean hondakinen kudeaketa kontrolatzea
- hala badagokio, kontuan hartzen diren iraunkortasun-neurriak gauzatzen direla kontrolatzea

Ingurumen-jarraipen hau, obren kontratak egingo du zuzenean, obren zuzendaritzak gainbegiraturik.



11. LANTALDEA

Dokumentu honetan, EKOS, Asesoría e Investigación Medioambiental (EEO S.L.) enpresako lan talde profesionalak hartu du parte.

Jan Lukas Menzel
Natur Zientzien Doktorea

NAN 78941175-T

Henar Sevilla
Geografian Lizentziatua

NAN 45822484-K

Ione Ortega
Biologian Graduatua

NAN 44347981-W

Amorebieta-Etxano, 2021eko apirila



12. BIBLIOGRAFIA

Energiaren Euskal Erakundea (EEE). Euskadiko mapa hidrogeologikoa. 1996

Eusko Jaurlaritz. EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. 2019

Eusko Jaurlaritz. Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioa. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. 2017

Eusko Jaurlaritz. EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila. 2014

Eusko Jaurlaritz. EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatze Lurraldea Plan Sektoriala. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila. 2013

Eusko Jaurlaritz. Bilbo Metropolitarraren Lurralde Plan Partziala. Lurralde Antolamendurako Saila. 2006

Eusko Jaurlaritz. Hezeguneen Lurralde Plan Sektoriala. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila. 2004

Eusko Jaurlaritz. Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatze Lurralde Plan Sektoriala. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila. 2004

Eusko Jaurlaritz. Euskal Autonomi Elkarteko Ornodunak. Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumena Saila. 1989

IKT; PAISAIA. EAEko Paisaia Bikain eta Apartekoen Katalogo irekia–Aurreproiektua. Ingurumen eta Lurralde Plangintza Saila. Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritz. 2005

Online iturriak

<http://www.bizkaia.eus/>

<https://www.euskadi.eus>

<http://www.euskalmet.euskadi.eus/>

<http://www.eustat.eus/>

<http://www.geo.euskadi.eus/>

<http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/>

<https://www.uragentzia.euskadi.eus/>

<ftp://ftp.geo.euskadi.net/cartografia/>

KARTOGRAFIA ERANSKINA

1. Plan Bereziaren eremuaren kokapena Sondikan (Bizkaia)